

## VI. ERANSKINA

### INGURUMENARI KALTE NABARMENIK EZ ERAGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA (DNSH PRINTZIPIOA)

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak<sup>1</sup>, bere izenean edo \_\_\_\_\_ operadore ekonomikoaren ordezkartzan (operadore ekonomikoaren IFZ: \_\_\_\_\_)

\_\_\_\_\_ espediente-zenbakia duen kontratuaren adjudikazio-prozedurari/dirulaguntza-deialdiari dagokionez,

**Lehenengoa.** Aurkeztutako eskaintzak baldintza hauek betetzen ditu:

1. Bertan gauzatzen diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten beheko ingurumen-helburuei, ingurumenaren aldetik iraunkorrak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema bat (edo «taxonomia») ezarri inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberako:

Klima-aldaketa arintzea.

Klima-aldaketara egokitzea.

Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak jasagarritasunez erabiltzea eta babestea.

Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.

Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.

Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea.

2. Jarduerak, hala badagokio, Osagaia neurtzeko eta azpineurria egiteko ezarritako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean islatzen dira.
3. Proiektuan gauzatzen diren jarduerak aplikatzeko den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.
4. Gauzatzen diren jarduerak ez daude baztertuta Planaren bitartez finantzatzeko aukeratik, «Kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari eta dagokion eranskinari jarraikiz.
5. Gauzatzen diren jarduerak ez dute zuzeneko ondoriorik eragiten ingurumenean, ez eta lehen mailako zeharkako ondoriorik ere beren bizi-ziklo osoan; halakotzat jotzen dira jarduera amaitu ondoren gauzatu daitezkeenak.

<sup>1</sup> Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariak sinatu beharko dute adierazpen hau.

**Bigarrena.** Badaki eta onartzen du adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dituela.

\_\_\_\_\_ (e)n, 20\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)an

Sin.: